



MATERIAL SANITARIOAREN %0 TASA.

- Ohiko galderak -

1. Zer baldintza bete behar dira material sanitarioaren erosketari %0 tasa aplikatzeko?
2. Nola dokumentatzen dira fakturan material sanitarioaren entregak, %0ko tasa aplikatzen zaienean?
3. Material sanitarioaren entregak zero tasan zergapetzeak mugatzen al dio saltzaileari kenkarirako eskubidea?
4. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren entregengatik egiten diren fakturak, entrega horiei zero tasa aplikatu zaienean?
5. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren eskurapengatik jasotzen diren fakturak, eskurapen horiei zero tasa aplikatu zaienean?
6. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren Batasun barruko eskurapengatik jasotzen diren fakturak, eskurapen horiei zero tasa aplikatu zaienean?
7. Nola erregistratzen dira BIH sisteman zero tasa aplikatuta egiten diren ondasun inportazioak?
8. Nola aitortu behar diren material sanitarioak, 0 tasa aplikatu zaienean, 300, 320, 322, 330, 390, 393, 349 eta BIHn

MATERIAL SANITARIOAREN %0 TASA.

- Ohiko galderak -

1. Zer baldintza bete behar dira material sanitarioaren erosketari %0 tasa aplikatzeko?

- **2020 apirilaren 23tik uztailaren 31ra bitartean**, pandemiari aurre egiteko material sanitarioaren barruko entregei, inportazioei eta Batasun barruko eskurapenei %0ko tasa aplikatuko zaie baldintza hauek betetzen badira:

Apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-Dekretuaren eranskinean aipatzen diren ondasunak izatea. Informazio gehiago:

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2020-4554>

Hartzaileak era honetakoak izatea: Zuzenbide Publikoko entitateak, klinikak edo ospitaleak, edo izaera sozialeko entitate pribatuak, BEZaren Legeak 20. artikuluko hirugarren apartatuan aipatuak.

- **Irailaren 22ko 28/2020 Errege Dekretu** Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera **urriaren 31ra arte** luzatzen da **ehuneko zero zergaren tasa** aplikatzea barne entregei, inportazioei eta batasun barneko hornikuntza medikuei COVID-19ri aurre egiteko, hartzaileak erakunde publikoak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta ospitaleak direnean. **Neurri hau aplikatzen zaien ondasunen zerrenda eguneratzen da:**

<https://www.boe.es/boe/dias/2020/09/23/pdfs/BOE-A-2020-11043.pdf>

(PDF Gaztelaniaz- Eranskina ikusi)

- **2021eko apirilaren 30era arte** luzatu da %0 zerga tipoaren aplikazioa COVID-19ari aurre egiteko osasun- gaientzat, erosleak entitate publikoak, irabazi asmorik gabekoak eta ospitaleak direnean.

Neurriok **2020ko azaroaren 1etik aurrera** eragiten dien ondasunen zerrenda Errege Dekretuko eranskinean ageri da eta aurreko araudian baino salgai gehiago azaltzen dira.

<https://boe.es/boe/dias/2020/11/18/pdfs/BOE-A-2020-14368.pdf>

(PDF Gaztelaniaz- Eranskina ikusi)

Gogorazten da eragiketa horiek fakturan salbuetsitako eragiketak bezala dokumentatu behar direla.

Bestalde, behin-behinean, %21eko zerga tipoa %4ra murrizten da musuko kirurgiko ez erabilgarrietan, bai emateetan bai inportazioetan zein batasun

barruko erosketetan, betiere, eroslea ez denean entitate publikoa, irabazi asmorik gabekoa edo ospitalea. Neurri hori 2021eko abenduaren 31era arte luzatuko da, eta 2020ko azaroaren 19an sartuko da indarrean.

- **2021eko abenduaren 31 arte** luzatu da %0 zerga tipoaren aplikazioa COVID-19ari aurre egiteko osasun-gaiantzat, erosleak entitate publikoak, irabazi asmorik gabekoak eta ospitaleak direnean.

Neurriok **2021eko maiatzaren 1etik aurrera** eragiten dien ondasunen zerrenda Errege Dekretuko eranskinean ageri da.

<https://www.boe.es/boe/dias/2021/04/28/pdfs/BOE-A-2021-6872.pdf>

(PDF Gaztelaniaz- Eranskina ikusi)

- [Abenduaren 22ko, 35/2020 Errege Dekretu Legeak](#) (PDF gaztelaniaz), azken xedapenetako zazpigarrenean, Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, SARS-CoV-2aren eraginei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzu prestazio jakin batzuen batasun barruko entrega, inportazio eta eskurapenentarako, bai eta baliokidetasun errekaruaren araubide bereziaren ondorioentarako ere, aldatzen du.

1. Errege lege dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin, abenduaren 24tik eta 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren 100eko 0ko tasa aplikatuko zaie honako hauei:

a) SARS-CoV-2aren in vitro diagnostikorako osasun produktuen entrega, inportazio eta eskurapenak, baldin eta honako xedapen hauetan jasotakoko beharkizunak betetzen badituzte: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 27ko 1998/79/EE Zuzentaraua, In vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa; edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 5eko 2017/746/EB Erregelamendua, In vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa eta Batzordearen 1998/79/EE Zuzentaraua eta 2010/227/EB Erabakia indargabetzen dituena; eta In vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzko irailaren 29ko 1662/2000 Errege Dekretua.

b) Europako Batzordeak baimendutako SARS-CoV-2aren aurkako txertoen entregak.

c) Batasun barruko entrega, inportazio eta eskurapenekin lotutako garraio, biltegiatze eta banaketa zerbitzuen prestazioak, aurreko a) eta b) letretan jasotakoak.

Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira fakturan.

2. Aurreko apartatuan aipatutako denbora tartean, 100eko 0ko baliokidetasun errekaruaren tasa aplikatuko zaie apartatu horretan adierazitako ondasunen entreegi.

[Itzuli](#)

2. Nola dokumentatzen dira fakturan material sanitarioaren entregak, %0ko tasa aplikatzen zaienean?

Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatu behar dira fakturan, enpresen fakturazio sistemak egokitu beharra saihesteko.

[Itzuli](#)

3. Material sanitarioaren entregak zero tasan zergapetzeak mugatzen al dio saltzaileari kenkarirako eskubidea?

%0ko zerga tasa aplikatzeak ez du mugatzen eragiketa egiten duen enpresaburuak jasandako BEZa kentzeko eskubidea.

[Itzuli](#)

4. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren entregengatik egiten diren fakturak, entrega horiei zero tasa aplikatu zaienean?

Ondasun entrega horiengatik egiten diren fakturak egindako fakturen erregistro liburuan erregistratu behar dira BIH sisteman, erregimen bereziaren gako gisa 01 ipiniz, «Fakturaren xehetasunak» blokean «Lotua» eta «Salbuetsia» adieraziz, eta zerga oinarria jarritz. Aukeran, salbuespenaren arrazoi gisa E6 jarri daiteke.

[Itzuli](#)

5. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren eskurapenengatik jasotzen diren fakturak, eskurapen horiei zero tasa aplikatu zaienean?

Ondasun eskurapen horiengatik jasotzen diren fakturak jasotako fakturen erregistro liburuan erregistratu behar dira BIH sistemaren barruan, erregimen bereziaren gako gisa 01 ipiniz, eta «Fakturaren xehetasunak» blokean zerga oinarria bakarrik betez.

[Itzuli](#)

6. Nola erregistratzen dira BIH sisteman material sanitarioaren Batasun barruko eskurapenengatik jasotzen diren fakturak, eskurapen horiei zero tasa aplikatu zaienean?

Eragiketa horiengatik jasotzen diren fakturak jasotako fakturen erregistro liburuan dokumentatu behar dira, jarraian zehazten den eran:

- Faktura egilearen identifikazioa (idOtro): Identifikazio fiskaleko zenbakia egoitzako herrialdean (02 gakoa. IFZ-BEZ) Ez da beharrezkoa «herrialdearen kodea» betetzea.
- Faktura zenbakia: faktura zenbakia.
- Fakturaren data: faktura noiz egin den.
- Faktura mota: F1.
- Zenbateko osoa: fakturaren zenbatekoa osoa eurotan.
- Erregimen bereziaren gakoa: 09.
- Zerga oinarria: bat dator fakturaren zenbateko osoarekin.
- Jasandako kuota: zero jarriko da.
- Kuota kengarria: zero jarriko da.

[Itzuli](#)

7. Nola erregistratzen dira BIH sisteman zero tasa aplikatuta egiten diren ondasun inportazioak?

Eragiketa horiek dokumentatzen dituzten ADBak egindako fakturen erregistro liburuan dokumentatu behar dira, jarraian zehazten den eran:

- Fakturaren identifikazioa
 - Faktura egilearen IFZ: inportatzailearen IFZ
 - Faktura zenbakia: ADBaren erreferentzia zenbakia
 - Onarpen data: noiz eman dion aduanak onarpena ADBari.
- Faktura mota: F5
- Erregimen bereziaren gakoa: 01
- Zerga oinarria: ADBaren 47. laukia. B00 tributu kodea duen lerroan adierazitako zenbatekoa. Partida arantzelario bat baino gehiago egonez gero, partida bakoitzean adierazitako zenbatekoak batu behar dira.
- Jasandako kuota: 0
- Kuota kengarria: 0
- Fakturaren zenbateko osoa: zerga oinarriaren zenbatekoa

[Itzuli](#)

8. Nola aitortu behar diren material sanitarioak, 0 tasa aplikatu zaienean, 300, 320, 322, 330, 390, 393, 349 eta BIHn.

	Entregak	Estatu barruko eskurapenak	Inportazioak	Batasun barruko eskurapenak
300 eredua	31. laukia - Esportazioak eta asim.	Ez	Ez	Ez



320 eredua	31. laukia - Esportazioak eta asim.	Ez	Ez	Ez
322 eredua	39. laukia - Esportazioak eta asim.	Ez	Ez	Ez
330 eredua	31. laukia - Esportazioak eta asim.	Ez	Ez	Ez
390 eredua	86. laukia - Kenkarirako eskubidea ematen duten esportazio eta bestelako eragiketak	97. laukia - Estatu barruko eskurapen salbuetsiak	98. laukia - Inportazio salbuetsiak	99. laukia - Batasun barruko eskurapen salbuetsiak
393 eredua	92. laukia - Kenkarirako eskubidea ematen duten esportazio eta bestelako eragiketak	103. laukia - Estatu barruko eskurapen salbuetsiak	104. laukia - Inportazio salbuetsiak	105. laukia - Batasun barruko eskurapen salbuetsiak
349 eredua				Bai.
BIH	Eragiketa gakoa: 01 Lotua eta salbuetsia Fakturaren xehetasunak: ZO Salbuespenaren arrazoia: E6- Beste batzuk (hautazkoa)	Eragiketa gakoa: 01 Xehetasunak: ZO	<u>Administrazio dokumentu bakarra (ADBa)</u> Faktura mota: F5 Faktura zk.: ADBa Eragiketa gakoa: 01 Kontrapartea: enpresa bera Erregistratu «xehetasunen datuetan» Zerga oinarria: ADBaren 47. laukia. B00 tributu kodea duen lerroan adierazitako zenbatekoa Partida arantzelario bat baino gehiago egonez gero, partida bakoitzean adierazitako zenbatekoak batu behar dira. Jasandako kuota: zero Kuota kengarria: zero	Kontrapartearen identifikazio mota: 02 IFZ-BEZ Eragiketa gakoa: 09 Erregistratu «xehetasunen datuetan» Zerga oinarria: fakturaren zenbateko osoa Jasandako kuota: zero jarriko da Kuota kengarria: zero jarriko da

[Itzuli](#)